

Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena. Dirulaguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, 2024ko ekitaldian euskara ingurune digitalean egon dadin ekoizkinak egiten dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei, enpresaburu indibidualei eta profesionalei.

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat helburu ezarri ditu, eta helburu horietako bat da euskararen erabilera sustatzea. Hain zuzen ere, euskara gizarte-eremu guztietara zabaltzeko ahalegin horretan, ezinbestekotzat jotzen da informazio eta komunikazioaren teknologien ahalmen handia aprobetxatzea, hizkuntza landu, prozesatu eta zabaltzeko, eta, beraz, beharrezkoa da laguntza-tresna egokiak jartzea gizarte eragileen eskura, arlo honetako egitasmoak garatu eta gauzatzeak eragindako kostuak murrizteko.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas, personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro, personas empresarias individuales y profesionales del Territorio Histórico de Bizkaia que durante el ejercicio 2024, elaboren productos que fomenten la presencia del euskera en el entorno digital.

La Diputación Foral de Bizkaia se ha marcado diversos objetivos, entre ellos, promocionar el uso del euskera. Precisamente, en los esfuerzos de extender el euskera a todos los ámbitos sociales, se estima imprescindible aprovechar la enorme potencialidad de las tecnologías de la información y de la comunicación para elaborar, procesar y difundir la lengua, y, consecuentemente, se plantea la necesidad de poner a disposición de los agentes sociales los instrumentos de ayuda adecuados para la reducción de los costes derivados del desarrollo y materialización de proyectos en este ámbito.





Goian adierazitako konpromisoa betetzeko, foru-dekretu arautzaile honen bidez ezarri nahi dira Euskararen Aholku Batzordeko barruko Ingurune Digitalean Batzorde-atal Bereziak egin eta 2021ean argitaratutako *Euskararen Ingurune Digitala: gomendioak 2021-2024* dokumentuaren gomendioak, eta, bereziki, euskarazko eduki digitalak sustatzeari lotutakoak.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak urtero dirulaguntza-lerro bat izaten du Bizkaiko merkataritza-sozietate, kooperatiba-sozietate, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko, banakako enpresaburu eta profesionalei laguntza emateko euskararen erabilera sustatzeko funtsezko lanean.

Euskararen erabilera normalizatzeko Eusko Legebiltzarraren 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean oinarritzen da proposatzen den xedapen orokor honi dagokion eskumena; izan ere, lege horrek, zioen azalpenean, ezartzen du Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Agintaritzaren esku uzten dela euskararen erabilpena zabaltzeko eta arauzkotzeko xedezko neurriak hartzea.

Hortaz, 26. artikulua xedatzen du euskal herri-aginteei neurri egokiak hartuko dituztela eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarrekin, kirol, erlijiozko edota beste edozein motatako jardueran guztiak euskaraz garatu ahal izan ditzaten.

Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen, sail horri eskumen hau esleitzen dio: euskararen

En ejecución del referido compromiso, el presente decreto foral pretende implantar las recomendaciones contenidas en el documento *El entorno digital del euskera: recomendaciones 2021-2024*, elaborado por la Comisión Especial del Consejo Asesor del Euskera para Fomentar el Euskera en el Entorno Digital y publicado en el año 2021, y especialmente, las relacionadas con la promoción de contenidos digitales en euskera.

Para ello, la Diputación Foral de Bizkaia cuenta anualmente con una línea de subvención que tiene por objeto colaborar con las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas, personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro, personas empresarias individuales y profesionales del Territorio Histórico de Bizkaia, con el fin de apoyarlas en su labor fundamental en el ámbito de la promoción del uso del euskera.

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta se fundamenta en la Ley del Parlamento Vasco 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera en su Exposición de Motivos, que confía a los poderes públicos de la Comunidad Autónoma Vasca la adopción de las medidas encaminadas a asegurar el desarrollo y normalización del uso del euskera.

Así, dispone en su artículo 26 que los poderes públicos vascos deberán tomar las medidas oportunas y poner los medios necesarios tendentes a fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de posibilitar a la ciudadanía el desenvolvimiento en dicha lengua en las diversas actividades mercantiles, culturales, asociativas, deportivas, religiosas y cualesquiera otras.

Concretamente, el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, atribuye a este Departamento la competencia para la





ezagutza eta erabilera sustatzea gizartearen alor guztietan; hala, osatu egiten da foru dirulaguntzetarako deialdi honen esparru juridikoa.

Halaber, dekretu hau izapidetzean printzipio hauekin bat jarduten da: beharrezkotasuna eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, lastertasuna eta efizientzia, herritarren parte-hartzea eta kontuak ematea. Izan ere, hala ezartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikulua (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua, non printzipio horiek modu orokorrean ezartzen diren. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan ezarritakoa betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, dekretu honek genero-ikuspegia jasotzen du, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru-

promoción del conocimiento y del uso del euskera en todos los ámbitos de la sociedad, completando de este modo el marco jurídico de la presente convocatoria de subvenciones forales.

Asimismo, en la tramitación de este decreto se actúa de acuerdo con los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, así como el de rendición de cuentas inherentes a los principios de buena regulación y ello de acuerdo con lo establecido en artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y a lo establecido en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios con carácter general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la





dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero-Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa.
2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko txostena.
4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
5. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 41.1 artikulua aukera ematen du dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola haiek onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bidez, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak aztertutik, honako hau

realización de la evaluación previa del impacto en función del género.

Cabe señalar finalmente que, atendiendo a lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, en la elaboración del presente decreto de subvenciones se han emitido los siguientes informes:

1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género.
2. Informe Jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.
4. Informe de control económico.
5. Informe de legalidad.

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los Diputados Forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión y el artículo 41.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su aprobación en un solo acto.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte y previa deliberación de la Diputación Foral de





Bizkaia

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra. *Foru-dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onestea.*

Artículo único. *Aprobación de las bases reguladoras y de la convocatoria pública de subvenciones forales.*

2024ko ekitaldian euskara ingurune digitalean egon dadin ekoizkinak egiten dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietatei, kooperatiba-sozietatei, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei, enpresaburu indibidualei eta profesionalei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas, personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro, personas empresarias individuales y profesionales del Territorio Histórico de Bizkaia que durante el ejercicio 2024, elaboren productos que fomenten la presencia del euskera en el entorno digital.

Azken xedapenak

Azken xedapenetako lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion diru-laguntzak ematea.

2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak aurkezteko epea luzatzeko, baldin eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean*

Disposiciones finales

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*

1. Se habilita a la Diputada Foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta habilitación incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.

2. Asimismo, se habilita a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para acordar la ampliación del plazo de presentación de solicitudes, en el caso de incidencia técnica que imposibilite el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación correspondiente, previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*





jartzea.

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte.
LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA.

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.





2024KO EKITALDIAN EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN EGON DADIN EKOIZKINAK EGITEN DITUZTEN BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO MERKATARITZA-SOZINETATEEI, KOOPERATIBA-SOZINETATEEI, IRABAZI-ASMORIK GABEKO PERTSONA JURIDIKO PRIBATUEI, ENPRESABURU INDIBIDUALEI ETA PROFESIONALEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES DESTINADAS A LAS SOCIEDADES MERCANTILES, SOCIEDADES COOPERATIVAS, PERSONAS JURÍDICAS PRIVADAS SIN ÁNIMO DE LUCRO, PERSONAS EMPRESARIAS INDIVIDUALES Y PROFESIONALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA QUE DURANTE EL EJERCICIO 2024, ELABOREN PRODUCTOS QUE FOMENTEN LA PRESENCIA DEL EUSKERA EN EL ENTORNO DIGITAL.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. Diru laguntzaren xedea.

1. Foru-dekretu honen arabera, dirulaguntza jaso dezakete euskarak ingurune digitalean duen presentzia sustatzen laguntzen duten proiektuek, Euskararen Aholku Batzordeko barruko Ingurune Digitalean Batzorde-atal Bereziak *Euskararen Ingurune Digitala: Gomendioak 2021-2024* dokumentuan euskarazko eduki digitalak sustatzeari begira jasotako gomendioen arabera. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak dokumentu horretan ezarritakoa hartu baitu arlo horretako abiabide nagusi legez. Horretara, bada, foru-dekretu arautzaile honen bidez, talde hauetakoren batean sar daitezkeen proiektuak izango dira dirulaguntzen deialdi honen xede:

A MULTZOA: zerbitzu anizkoitzeko euskarazko atari eta webgune berriak, web bidezko parte-hartze eta komunikaziorako edukiak egitea, eta komunitate birtualak sustatzea helburu duten egitasmoak, eta 2024a baino lehen sortutako atari edo webguneak eduki eta zerbitzuez elikatzea helburu dutenak. Berariaz baloratuko dira weberako sortutako ikus-entzunezkoak sustatzen dituztenak, eta, bereziki, gazteen eta nerabeen aisialdi zuzendutakoak.

TÍTULO I

Disposiciones generales

Base 1. *Objeto de la subvención.*

1. Las actividades subvencionables con arreglo al presente decreto foral son los proyectos que coadyuven al fomento de la presencia del euskera en el entorno digital, de conformidad con las recomendaciones de la Comisión Especial del Consejo Asesor del Euskera para Fomentar el Euskera en el Entorno Digital establecidas en el documento *El entorno digital del euskera: Recomendaciones 2021-2024*, dirigidas a la promoción de contenidos digitales en euskera, que de hecho, la Diputación Foral de Bizkaia asume como directrices fundamentales en esta materia. De esta manera, y específicamente, a través del presente decreto foral regulador, serán objeto de subvención los proyectos que se puedan adscribir a alguno de los siguientes grupos:

GRUPO A: proyectos que tengan por objetivo la creación de webs multiservicios nuevas en euskera, la creación de contenidos para la participación web y la comunicación, y el fomento de las comunidades virtuales, y aquellos que tengan por objeto dotar de nuevos contenidos y servicios a sitios web creados antes de 2024. Se valorarán específicamente aquellos que promuevan productos audiovisuales creados para la web y, especialmente, los dirigidos al ocio de





B MULTZOA: Euskaraz dauden gailu mugikorretarako aplikazioak, bideo-jokoak eta ordenagailuetan erabiltzeko ekoizkinak, baita, ordenagailuetan edo gailu mugikorretan erabiltzekoak ez izan arren, euskaraz eginiko softwarea behar duten bestelako ekoizkinak ere.

C MULTZOA: euskal kulturaren ondarearen gainean euskaraz dagoen informazioa digitalizatu eta zabaltzea. Euskarazko multimedia eduki berriak sortzea euskarri fisiko batean (CD, DVD, eta abar) argitaratzekoak baldin badira edota eduki hauen zabalkunderako soilik sortutako web bidez argitaratzen badira.

D MULTZOA: softwarea euskaraz sortzea edo euskarara lokalizatzea helburu duten proiektuak.

Dirulaguntzarako eskabidean aurkeztutako proiektuak 2024ko ekitaldiaren barruan garatu beharko dira eta publikoari zabalik edo merkatuan eskuragarri egon behar dute urtea bukatu aurretik.

Proiektuak, euskaraz ez ezik, beste hizkuntza batzuetan ere garatzen badira, euskarazko edukiak eta edukioi dagozkien gastuak bakarrik izango dira laguntza-gai.

Sexua dela-eta diskriminatzen duten jarduerak edo ekintzak ezingo dira diruz lagundu, inondik inora ez.

2. Deialdi hau izapidetzean indarrean dagoen Euskara Sustatzeko Ekintza Planak (ESEP) ezarritako helburuekin bat ez datozen proiektuak ez dira diruz lagunduko. Horrez gainera, honako hauek ere ez:

a) Ahotsa euskaraz ezagutu eta sintetizatzeraz jotzen duten ekoizkinak.

b) Autoretza eta ediziorako lanabesak (zuzentzaile ortografikoetan eta gramatikaletan dautzanak).

c) Itzulpenari laguntza emateko tresnak (berbarako, hiztegi elektronikoak eta terminologi datutegiak).

d) Itzulpen automatikorako sistemak, eremu

jóvenes y adolescentes.

GRUPO B: Aplicaciones para dispositivos móviles, videojuegos y productos destinados a su uso en ordenadores, que estén en euskera, o bien otro tipo de productos que, sin estar destinados a ser usados en un ordenador o dispositivo móvil, requieran software desarrollado en euskera.

GRUPO C: digitalización y divulgación de la información sobre el patrimonio cultural vasco en euskera. Creación de nuevos contenidos multimedia en euskera, bien para ser publicados en un soporte físico (CD, DVD, etc.), o bien para ser publicados en una web creada exclusivamente para la divulgación de estos.

GRUPO D: proyectos destinados al desarrollo de software en euskera o a la localización al euskera.

Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollarse durante el ejercicio 2024 y estar accesibles al público o disponibles en el mercado antes de finalizar el año.

En caso de proyectos desarrollados también en otros idiomas además del euskera, sólo los contenidos en euskera y los gastos referidos a éstos serán objeto de subvención.

En ningún caso se subvencionarán actividades o acciones que discriminen por razón de sexo.

2. No serán subvencionables los proyectos que no se ajusten a los objetivos establecidos por el Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP) que se encuentre en vigor en el momento de la tramitación de esta convocatoria, e, igualmente los siguientes:

a) Productos dirigidos al reconocimiento y síntesis de la voz en euskera.

b) Herramientas de autoría y edición (basadas en correctores ortográficos y gramaticales).

c) Herramientas de apoyo a la traducción (tales como diccionarios electrónicos y bases de datos terminológicas).

d) Sistemas de traducción automática,





telematikoen arabera eta testu moten arabera moldatutakoak.

e) Analisirako oinarritzakoak diren tresnak, aplikazio zehatzak alde batera lagata.

f) Multimedia sistemak, euskara ikasteko direnak.

g) Software-aplikazioak, baldin eta beren helburua bada hiztegi elektronikoak, zuzentzaile ortografikoak eta sinonimo hiztegiak ezartzea ofimatika-aplikazioetan.

h) Tokian tokiko lurreko telebista digitalak zein irratia.

i) Alderdi politiko, hauteskundeetarako koalizio, sindikatu, giza mugimendu, gobernu kanpoko erakunde nahiz lanbide-elkargoen egitasmoak.

j) Elkartea, fundazio zein enpresek beren bazkideentzat edo langileentzat soil-soilik garatutako egitasmoak. Halaber, korporatiboak diren proiektuak.

k) Atari eta webgune pertsonalak.

l) Atari eta webgune puntualak (gertakizun, ekitaldi edo jardunaldi jakin baten inguruan beren-beregi antolatutakoak, euskararekin zuzeneko lotura izanik ere).

m) Demoak eta prototipoak.

n) Eduki iraingarria edota pertsonen eskubideen aurkakoa duten egitasmoak.

ñ) Sexu bien arteko tratu-berdintasuna bermatzen ez duten edo sexuagatik diskriminatzen duten proiektuak.

o) Aurretiaz eginiko ekoizkinak euskaratzeko proiektua bada, salbu eta D multzoetako ekoizkinen kasuan.

p) Albiste orokorrak zabaltzea xede duten eta publiko orokorrari zuzenduta dauden internet bidezko hedabideak.

q) Online dendak eta salerosketarako plataformak.

adaptados a los ámbitos telemáticos y a los tipos de texto.

e) Herramientas básicas para el análisis independiente de aplicaciones concretas.

f) Sistemas multimedia, para el aprendizaje del euskera.

g) Aplicaciones de software dirigidas a implantar diccionarios automáticos, correctores ortográficos y diccionarios de sinónimos en las aplicaciones de ofimática.

h) Las televisiones digitales terrestres locales.

i) Proyectos de partidos políticos, coaliciones electorales, sindicatos, movimientos sociales, organizaciones no gubernamentales o colegios profesionales.

j) Proyectos pertenecientes a asociaciones, fundaciones o empresas dirigidos única y exclusivamente a sus asociados y asociadas, así como a sus trabajadores y trabajadoras, así como aquellos cuyo fin sea corporativo.

k) Portales y sitios web personales.

l) Portales y sitios web puntuales (organizados en torno a un acontecimiento, actividad o acto concreto, aunque esté relacionado directamente con el euskera).

m) Demos y prototipos.

n) Proyectos cuyos contenidos sean insultantes o contrarios a los derechos humanos.

ñ) Proyectos que no garanticen la igualdad de trato entre los dos sexos o que discriminen por razón de sexo.

o) Aquellos que tengan por objeto la traducción al euskera de productos ya existentes, salvo en el caso de los productos del grupo D.

p) Medios de comunicación en internet cuyo objeto sea la difusión de noticias de carácter general y se dirijan al público en general.

q) Tienda online o plataformas de compraventa.





r) Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak berak euskara hutsezko komunikabideen aldeko etorkizuneko ekintza-ildoak ziurtatzeko sinatutako hitzarmenaren esparruan, Bizkaiko Foru Aldundia ez den beste administrazioen baten diru-laguntza jasotzen duten edo jaso dezaketen komunikabideen proiektuak (idatzizkoak edo digitalak). Ildo horretan, ezin izango da foru-dekretu arautzaile honen dirulaguntzarik jaso baldin eta dirulaguntza hauek jaso badira: aipatutako hitzarmenaren esparruan administrazio horietako edozeinek emandakoak, edo Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat eremutan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko proiektuak diruz laguntzeko aldizka egiten dituen deialdien barruan emandakoak.

s) Lehen oinarriaren 4. puntuaren arabera, autofinantzaketa mailara iristen ez diren proiektuak.

3. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Egile-eskubideen erosketaren ondorioz egindakoak.

b) Ibilgetu materialean egindako inbertsioak.

c) Aurretiaz euskara ez den beste hizkuntza batean garatutako atari edo webguneari eta softwareari dagozkion gastuak.

d) Zeharkako tributuak (BEZa barne) ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak baldin eta berreskuratu edo konpentsatu egin badaitezke. Kasu horretan, gastuen zenbatekoek BEZik gabe agertu behar dute, hala eskabidean agertzen den aurrekontuan, nola dirulaguntzaren justifikazioarekin batera

r) Los proyectos de medios de comunicación (escritos o digitales) que recibieran o pudieran recibir subvención de alguna Administración distinta de la Diputación Foral de Bizkaia en el marco del convenio firmado entre el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la propia Diputación Foral de Bizkaia, para asegurar la línea de acción futura en favor de los medios de comunicación íntegramente en euskera. En tal sentido, las subvenciones otorgadas por cualquiera de dichas administraciones en el marco del citado convenio, o las otorgadas por la Diputación Foral de Bizkaia en el marco de sus convocatorias periódicas para la subvención de proyectos que fomenten el uso y presencia del euskera en diferentes ámbitos excluyen la posibilidad de recibir subvención bajo el presente decreto foral regulador.

s) Proyectos que no alcancen el grado de financiación propia establecido en la base 1.4.

3. Tendrán la consideración de gastos subvencionables los que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido, sin que el coste de adquisición de los gastos subvencionables pueda ser en ningún caso superior al valor de mercado.

No se considerarán gastos subvencionables los siguientes:

a) Los realizados como consecuencia de la compra de derechos de autor.

b) Las inversiones realizadas en inmovilizado material.

c) Los gastos relativos a portales o sitios web y software desarrollados previamente en otra lengua que no sea euskera.

d) Los tributos indirectos (y, entre ellos, el IVA) no se considerarán gasto subvencionable cuando sean susceptibles de recuperación o compensación. En tal caso, tanto en el presupuesto que contiene la solicitud como en el presupuesto ejecutado que se aportará con la justificación de la subvención deberán





aurkeztuko den aurrekontu gauzatuan. Era berean, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak errentaren gaineko zerga pertsonalak.

e) Oro har, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 29. artikuluekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak.

4. Foru-dekretu honen helburua da eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea; ez dira ezein kasutan finantzatzeko jardura egiteagatik sortutako gastu guztiak. Beraz, ondoren adierazten diren finantzaketa-mugak bete beharko dira. Irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuek proiektu bakoitzaren finantzaketaren % 35 hartuko dute beren gain, gutxienez; gainerako pertsona eta entitate onuradunek, berriz, % 45. Autofinantzaketa-maila horretara iristen ez diren egitasmoek ez dute laguntza-deialdian sarbiderik izango, eta, horren ondorioz, kanpoan utziko dira.

Autofinantzaketa maila honako diru-sarrera haez osatuta egongo da:

- a) Eskatzailearen diru-ekarpenak.
- b) Zerbitzu-salmentatik eskuratutakoak.
- c) Produktu-salmentatik eskuratutakoak.
- d) Publizitatetik eskuratutakoak.
- e) Entitate pribatuetatik jasotakoak.

2. oinarria. *Pertsonak edota entitate onuradunak.*

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateak, kooperatiba-sozietateak, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak, enpresaburu indibidualak eta profesionalak izan daitezke foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradun, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan jasotako egoeretako batean ez badaude, eta baldintza hauek betetzen badituzte:

figurar los importes de gasto sin IVA. De igual manera, tampoco resultarán gasto subvencionable los impuestos personales sobre la renta.

e) En general, los que resultan expresamente excluidos conforme al artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

4. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las entidades solicitantes, en ningún caso la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de la actividad, por lo que deberán cumplirse los límites de financiación que se indican a continuación. En el caso de las personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro, asumir, como mínimo, el 35 % de la financiación de cada proyecto; en el caso de las demás personas y/o entidades beneficiarias, dicho porcentaje será del 45 %. Aquellos proyectos que no alcancen ese grado de financiación propia no podrán acceder a la convocatoria de ayudas y, consecuentemente, quedarán excluidos.

Esta financiación propia estará integrada por las aportaciones siguientes:

- a) Contribuciones económicas de la persona y/o entidad solicitante.
- b) Las obtenidas mediante la venta de servicios.
- c) Las obtenidas mediante la venta de productos.
- d) Las obtenidas mediante publicidad.
- e) Las recibidas de entidades privadas.

Base 2. *Personas y/o entidades beneficiarias.*

1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas, personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro, personas empresarias individuales y profesionales del Territorio Histórico de Bizkaia que, no estando incursas en las causas del art. 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, reúnan los siguientes requisitos:





a) Egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Dagokien erregistroan izena emanda egotea, hala badagokio.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira betekizun horiek guztiak. Halaber, prozeduran zehar ere bete behar dira, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu arte.

2. Halaber, honako pertsona fisiko eta juridiko hauek ezin izango dute dirulaguntzak emateko prozesu honetan parte hartu eta onuradun izan baldin eta:

a) Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa izan badute administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan, dagokien zehapena indarrean dagoen bitartean.

b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

c) Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuko III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte.

3. Foru-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geldituko dira ondarean administrazio edo fundazio publiko baten edo batzuen partaidetza duten entitateak, unibertsitate publikoak, banku-fundazioak eta administrazio publikoetako ordezkariak patronatuko kide dituzten fundazioak (dagokion administrazioa ordezteko betetzen dutenean kargu hori).

a) Tener el domicilio social en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Encontrarse inscritas en el registro correspondiente, en su caso.

Los requisitos deben de acreditarse el día que finalice el plazo de presentación de las solicitudes. Asimismo, deberán mantenerse todos ellos durante todo el procedimiento hasta el momento de la entrega de la justificación de la subvención.

2. Asimismo, no podrán concurrir ni resultar beneficiarias de subvención las personas físicas y jurídicas:

a) que hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción.

b) cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

c) que incumplan las obligaciones establecidas en el Título III del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres o en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

3. Quedarán excluidas de la convocatoria regulada por el presente decreto foral las entidades en cuyo patrimonio exista participación de una o de varias administraciones o fundaciones públicas, las universidades públicas, las fundaciones bancarias, y aquellas fundaciones en cuyo patronato existan miembros de la Administración Pública que ocupen su cargo en representación de la misma.





II. TITULUA

Araubide juridikoa

3. oinarria. Araudi aplikagarria.

1. Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroko edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreraren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

4. oinarria: Arau-haustea eta zehapenak.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienaz, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko IV. tituluan xedatutakoa aplikatuko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduko IV. tituluan xedatutakoa

TITULO II

Régimen jurídico

Base 3. Normativa aplicable.

